

## Mamuen berragerpena

Beñat Eizagirre

**J**aponiako beldurrezko generoan 1990eko hamarkadan mugarri izan ziren *Ringu* (Hideo Nakata, 1998) eta *Ju-on* (Takashi Shimizu, 2002) filmetako espiritu maltzurak dira Koji Shiraishiren lan berriko protagonistak. Shimizu bera eta Koji Suzuki *Ringu* elebe-

**KRITIKA**  
**Beldurrezko Astea**  
**'Sadako vs Kayako'**

**Zuzendaria:** Koji Shiraishi.  
**Herrialdea:** Japonia.  
**Iraupena:** 98 minutu.

rriaren idazle ospetsua arduratu dira gidioa idazteaz. Eta, imajina dezakegun moduan, *Sadako vs Kayako* ez da batere berritzailea, ezta iradokitzailea ere, baina hotzikara eragiten duela aitortu behar da. Egileak sagaren jarraipen honekin ez du ezer apartekorik eskaintzeko asmorik, guztiz konbentzionala baita filma, baina argi dago egitasmoak bilatzen

zuen helburua betetzen duela. Egileak ikara sorrarazteko dabilen baliabidea ez da inolaz ere sofistikatua, baina eraginkorra dela ezin uka daiteke. Izan ere, ezustekoen bidez ikuslearengan hotzikara eragitea lortzen du, eta espirituak agertu bitartean tentsioa ziurtatuta dago. Proposamena konbentzionala izanik ez du ikuslearen oroimenean denbora askorik iraungo, azken batean, nerabeentzako produktua da honako hau. Entrenimendua soila izanagatik ez du esan nahi balekoa ez denik, baina, zorritxa-

rez, ez da *Train to Busan*. Istoriari dagokionez, berritasun modura Sadakok bideotik DVDrak jauzi egin duela aipatu behar da, eta bideo madarikatua Interneten birus bat bezala hedatuko da ondoren. Sadako eta Kayakoren arteko norgehiagoka ere jazotzen da bukaeran, baina gertaera horiek ez dute pisu nabarmenik istorioan. Protagonista nagusiak bideo hilgarria erosi duten Yuri eta Natsumi unibertsitateko ikasleak dira, batetik, eta etxe madarikatuaren ondora mugitu den familia bateko neskatoka, bestetik.

## Hezurak sotoan

Agus Perez

**L**uhusoko (Lapurdi) Harri Xuri aretoa azken besaulkiraino beteta zegoela, eta Euskal Herri osoko kultur ordezkarri askoren babesarekin –ez goi mailakoena, benetakoena baizik– estreinatu da hainbeste itxaron dugun *Francoren bilobari gutuna*.

Honezkeroko ohitzen hasiak egon beharko ginatke, baina hala ere, berezia izan da antzezle guztiak taula gainean ikusi izana gure lekuetaraino abiatzen ginen bitartean. Arreta jarri nahi dut hasi aurretiko minutu horietan, haietan gauzatu delako, indar handiz gauzatu ere, antzerkiaren misterio erabatekoa: beraiek sakrifizioarako prest, erritu sakratu-rako guztiz emanak, egun asko eta ordu zenbatezina prestakuntza pertsonal eta kolektiboan eman ostean.

Eta hasi da antzerkiaren ospakizuna, orain dela hiru mila urte asmatu zena, Ximun Fuchsek eta Urko Redondok elkarrekin trukatutako keinu arin baten ondorioz. Hasi da antzeleen tropa

**KRITIKA**  
**Antzerkia**  
**'Francoren bilobari gutuna'**

**Zuzendaria:** Ximun Fuchs.  
**Testuak:** Unai Iturriaga, Igor Elortza.  
**Eszenografia eta argiak:** Josep Duhau. **Musika:** Asier Ituarte.  
**Antzeleak:** Ander Lipus, Patricia Urrutia, Manex Fuchs, Zoila Berastegi, Urko Redondo, Erika Olaizola, Pako Revueltas.  
**Lekua:** Luhusoko Harri Xuri aretoa.  
**Eguna:** Urriak 31.

ospitale desantolatuta, kaotiko, malurus hari bizia ematen, hezurak sototik ateratzen –frankismoaren metafora bikaina–, hango korridore, itxarongela, kon-tsulta eta ebakuntza-geletatik igarotzen, bakoitza beraren munduan murgilduta, paziente izan nahiz mediku edo erizain izan, ama preso duen haur izan edo kaskezurrean metraila puska bat daraman biktima izan.



Antzeleanaren uneetako bat, entsegu batean. ISABELLE MIQUELESTORENA

Alde batetik bestera doaz denak, beren arazo pertsonalekin, arazo profesionalekin, amodio arazoekin gora eta behera, eta ikuslea hasi da pentsatzen ea zer harreman-mota ote duen horrek guztiak Francoren bilobari idatzitako gutun promestuarekin. Lasaitu dadila ikuslea, dena etorriko baita, Jesukristoren zortzi zorion-bideetan bezalaxe. Goza dezala

ikusleak antzele guztien gaitan-sun profetikoaz eta antzerkiaren apostolu berri hauek sortutako gorputz mistikoaz, behingoagatik esangura aurkitu baitoigu hitzontzikeria katolikoak erabat hutsal bihurtu duen kontzeptuari: ekipo baten aurrean gaude, denek utzi dute zerbait bidean helburu komun baten bilaketan, gorputz baten eran mugitzen dira, bai-

na haietariko bakoitzak zerbait ematen dio taldeari helburu handiago baten izenean.

Dramaturgia menderaez, esplikaez, ia antzemanezin horretan txertatuta, ia subliminalki ekarri dituzte gogora frankismoan izandako fusilatzeak, torturak, zapalkuntza pertsonal eta orokorra, batzuetan fusilatuen edo izugarriki bortxatuen izenak irakurrita, kontsultetara etorritako pazienteak balira bezala, eta beste batzuetan fisikoki antzeztuta edota itzal txinatarren bidez irudikatuta, serorek ebatsitako jaioberrien eszena gogoangarriak bezala.

Ezin dut une honetan gehiago esan antzelean eredu garri honi buruz. Asko dira, eta handiak, balio sinbolikoa duten elementuak; aberatsegiak pertsonaia guztien artean eman daitezkeen harremanak, eta alboan utzi dugu eremu eszenikoaren diseinu arina, alboan utzi elementuei emandako esangura aniztuna, alboan pertsonaien kanpo karakterizazio bikainak, eta ez dugu aipatu Asier Ituarteren musikak daukan rol diskretu baina funtsezkoa. Emanaldi bakar batekin ezin da hori guztia barneratu, agian hirugarrenean hasiko ginatke hor barruan dagoen altxor ikaragarriaz jabetzen.

**LA VERONAL**  
Barcelona **RUSSIA**  
azaroak 3 / 20:00 h. / SALA BBK  
**DANTZALDIA**

17  
DANTZALDIA  
FUNDCION

1986  
**30**  
2016  
**La FundicioN**